BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2489

12/2013 EBAZPENA, maiatzaren 21ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinen bidez, Itourbask-Turismo Bulegoen Euskal Sareari atxikitako informazio turistikoko zerbitzuak emateko, toki-erakundeekin sinatzekoa den hitzarmen-ereduaren bigarren aldaketa argitaratzen baita, Itourbask-Turismo Bulegoen Euskal Sarea sortzeko 2003ko azaroaren 18ko 279/2003 Dekretuaren babesean.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko azaroaren 18an egindako bileran onartu zuen Itourbask-Turismo Bulegoen Euskal Sareari atxikitako informazio turistikoko zerbitzuak emateko toki-erakundeekin sinatzekoa den lankidetza-hitzarmen eredua, Itourbask-Turismo Bulegoen Euskal Sarea sortzeko 2003ko azaroaren 18ko 279/2003 Dekretuaren babesean (2003ko abenduaren 9ko EHAA, 240. zk.); onarpen hori Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren azaroaren 26ko 20/2003 Ebazpenaren bidez gauzatu zen.

Ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko ekainaren 22ko bileran erabaki zuen lankidetza-hitzarmenaren ereduaren laugarren klausula aldatzea.

2013ko martxoaren 14an, Jaurlaritzaren Kontseiluak erabaki zuen bigarren aldaketa bat egitea; aldaketa horrek hitzarmen-ereduaren laugarren eta seigarren klausulei eragiten die.

Ondorioz, eta hori behar bezala iragar dadin, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Itourbask-Turismo Bulegoen Euskal Sarean barne hartutako informazio turistikoko zerbitzuak emateko toki-erakundeekin sinatzeko lankidetza-hitzarmeneko ereduaren laugarren eta seigarren klausulen aldaketa argitaratzea, Itourbask-Turismo Bulegoen Euskal Sarea sortzeko 2003ko azaroaren 18ko 279/2003 Dekretuaren babesean. Honela idatzita geldi-tzen dira:

«Laugarrena.– Finantzaketa.

Hitzarmen honen 3. klausularen 1.d) idatzi-zatian xedatutakoaren arabera, Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailak urteko ---------- euroko ekarpena egingo du gehienez, edo, lankidetza urtebete baino gutxiagokoa denean, lan egindako aldiari dagokion parte proportzionala, betie-re hauen arabera: informazio turistikoko bulegoaren izaera iraunkorra/aldi baterakoa, ordutegiak, erantzundako kontsulta bolumena eta gastu osoa. Ekarpen hori hitzartutako jarduerak burutzeak ekarritako gastuak ordaintzeko izango da.

Ekarpen horren ordainketa bi alditan egingo da (aldi bakoitzean %50), eta hitzarmena sinatzen denetik, edo, hala behar bada, luzapena gertatzen denetik igarotako seihilekoka egingo da; aurre-tik, hitzarmen honen hirugarren klausularen 2.f) idatzi-zatian aipatzen den igarotako seihilekoaren memoria eta gastuen justifikazioa aurkeztu beharko du toki-erakundeak».

«Seigarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau, sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta urte bereko abenduaren 31 arte iraungo du; alderdiren batek berariazko salaketarik egin ezean hitzarmenaren indarraldia-

ren azken hiru hilabeteetan, besterik gabe luzatuko da ondorengo urteko aurrekontu-ekitaldietan, betiere kreditu egokia eta nahikoa badago ekitaldi bakoitzerako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan. Kasu horretan, Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailaren ekarpen ekonomikoa ez da aldatuko».

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 21a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.